



Oier Gorosabel
Fisioterapeuta eta osteopata

Neuroplastizitatea

Umetxo baten kasua aurkeztu didate: hilabete gutxi zituenean, herpes simplex birusarekin kutsatu omen zen; konplikazioak izan zituen eta kutsadura garunera pasatu zitzaion. Osatzea kosta zitzaion, baina, zorionez, azkenean infekzioa gainditu zuen. Halere, umeak hain txikiak direnean garatu gabe daudenez, ezin izaten dira horrelako lesioen ondorioak osotasunean neurtu harik eta haurrok oinez, berba egiten eta bestelako gauzak egiten hasten diren arte. Horrela gertatu zaie guraso hauei: duela gutxi hasi dira konturatzen umeak hitz egiteko eta janaria irensteko dituen ezintasunez; eta orduan kezka eta egonezina nagusitu zaie.

Gurasoon egoera gogorra da, hori ezin ukatu: edozer egiteko prest daude, alaba laguntzeko, baina osagileek itxaron egin behar dela esaten diete. Ados nago: ez dago arazo bat tratatzerik, harik eta arazoa bera argi manifestatu arte. Horregatik, itxarotea gogorra bada ere, umeari hazten laga behar zaio. Eta anomaliak agertu ahala tratatu.

Esandako moduan, gurasook jada hasi dira sumatzen sintoma batzuk. Berba egiteko zailtasunak oraindik ezin dira ondo aztertu: bi urte inguruko ume batez ari gara. Baina irensteko zailtasunak sumatzen hasi dira, adibidez; eta horrek garuneko zein gunee lesionatua dagoen markatzen digu, tratamendu posibileen bideak irekiz.

Tratamenduei buruz
ari garenez, ez zaigu
komeni esperantza
faltsuak haizatzea.
nerbio ehunak ez dira
muskuluak edo azala
bezain errez birsor-
tzen, eta nekez erre-
kuperatzen dira guz-
tiz. Beraz, ondorioak
geratzen dira. Halere,
galdetu zidatenean,
gurasooi itxaropenez-
ko leihatila bat ireki
nahi izan nien. Neuro-
logia etengabeko iker-
ketan ari den eremua
izanagatik, oraindik ez
ditugu ulertzen gure

nerbio sistemaren erantzun batzuen zergatiak; baina, ulertu ez arren, egoera berrietara egokitzeko ahalmen harrigarriaren adibideak ezagutzen dira. Ahalmen horri neuroplastizitatea esaten zaio; ikerketa-lerro interesgarria benetan. Esate baterako: gizon transexual batzuei (emakumezko sexu-organoekin jaiok, alegia), gizonezko genital berriak egiten zaizkie, kirurgiaren bidez. Horrela sortutako zakilek, eginahalak eginda ere (klitoriaren nerbio zuntzak berrera-biltzea, eta abar), ez dute berezko zakilaren sentikortasunik... printzipioz. Izan ere, azken urteotako ikerketak garunean izandako aldaketa interesgarri batzuk neurtzen hasi dira. Oso modu sinplean esanda: emakume jaiotako pertsona horrek zakil “normala” izateko gogo handia du; hain gogo handia, ezen, bere garunean neurona lotura berriak sortzeko gai izan den, hortik genitaletera bitarteko nerbio-bide berriak irekiz. Uler ezazue ongi kontzeptu hau: ez da lesio-natutako neurona bat sendatu; neurona guztiz berria sortu da, lehen ez zegoen lekuan. Konturatzen zarete nolako potentziala duen horrek?

Berriro diot: ez dut gorputzaren autosen- datze ahalmenari bu- ruzko zientzia-fikzio- rik egin nahi, eskrupulorik gabeko iruzurgileak elikatuz. Bakarrik esan nahi dut gorputza, eska- tzen bazaio, erantzun bat ematen saiatzen dela. Nire lagunen umearen kasura buel- tatuz, bere ahalmenen eta gabezien neurrira egokitutako inguru ba- tean murgilduz gero, lesionatutako gunea suspertuko dugu, eta, neuroplastizitate horri esker, nerbio-bide be- rriak irekitzeko aukera handiagoa izango da. Azken urteotan aurre- rakuntza handiak egin dira estimulazio goiz- tiarra deritzon arlo honetan, osasun, hezkun- tza eta zerbitzu sozialak integratzen dituenak. Ume honen kasurako bide ezin aproposagoa. •



Neurona berriak sortu daitezke lehen ez zeuden lekuan.

Iuanan RUIZ | ARGAZKI PRESS